

B EUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Auzitegi Gorenak bi erabaki euskararen alde

Apirilaren 21ean jakin izan zenez, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Gorenak (EHJAG) onetsi egin zuen Beasaingo udalak euskaraz bizitzea eta lan egitea erabaki zuten udalekin bat egiteko hartu zuen erabakia, zeren eta "euskara bizi eta lan egiteak ez du esan nahi gazteleraren erabilera baztertuko denik, eta harreman tresna gisa euskarari lehentasuna emanda ere, ezin esan daiteke gazteleraren aurkakoa denik. Euskaraz bizi eta lan egiteko gogoia legezkoa da EHJAGren iritziz, "espainiar guztien berdintasun printzipioa gorde eta bereizkeria baztertu egiten duelako". Erabaki honekin Auzitegi Gorenak atzera bota du Gipuzkoako gobernadore zibilararen errekurtsioa.

Maiatzaren lehen egunetan, bestalde, Auzitegi berak konstituzionalizat jo zituen euskal administraziooko funtzionarioei 1989an Eusko Jaurlaritzak onartu zituenetik, aplikatzen zaizkien hizkuntz eskakizunak. Eskakizun horietan zehaztu egiten zaio funtzionari bakoitzari, lanaren arabera, jakina, zein euskara maila izan behar duen. Kasu honetan, Auzitegi Gorenak ez ditu onartu UGT sindikatuak aurkeztutako bi errekurtsio, lehena epez kanpo aurkeztu zelako eta bigarrenari zuzena iritzi ez diolako. UGTk erabakia errekurritu egingo duela esan du. Euskal administrazioa, berriz, pozik agertu da, hizkuntzari dagokionez, argi geratzen bait da legearen arabera jokatzeko duela.



Aurkezpen gisa

Gure hizkuntzaren kezka nola edo hala bizi dutenen arteko harremanak sendotzeko asmoz, komunikabide berria sortu du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusi (HPIN) honek: EUSKARAREN BERRIPAPER A. Honatx bere nondik norakoak:

- ♦Euskalgintzaren berri emango du, bereziki idazkaritza honek sustatutako ekintzena.
- ♦Euskararen normalizazioari hegira ematen diren pausuen berri emango du.
- ♦Bi hizkuntzatan aterako da, euskaraz gaztelaniaz. Harpidedunak berak erabakiko du zein hizkuntzatan jaso nahi duen. Horrela egin dugu euskara denon ondarea dela uste dugulako.
- ♦Arina eta irakurterraza, EUSKARAREN BERRIPAPER A gaian espezialista ez direnentzat egina da.
- ♦Nahi duten guztiek egin dezakete EUSKARAREN BERRIPAPER A ren harpidetza eta etxean jaso, dohainik. Hirugarren orrialdean beti egongo da harpidetza-txarteltxo bat, berripapera eskatu nahi duzuen guztien erabilpenerako. Bete, zein hizkuntzatan jaso nahi duzun zehaztu eta bidali.
- ♦Hasteko, 8.000 ale banatzen hasiko gara. Harpidetza-eskariak etorri ahala, handituz joango da.

Iritzirik edo iradokizunik baduzu, deitu edo idatz iezaiguzu. Wellingtongo Dukea, 2an gaude, 01011 Gasteiz (Araba), edo (945) 246000 tfno.an. Eskerrik asko.

Miren Azkarate, euskaltzaina

Euskaltzaindiak, orain 74 urte sortu zenetik, oraintxe onartu berri du lehen emakume euskaltzaina:

Miren Azkarate, 36, doktoresa eta irakasle donostiarra, ezkondua, zazpi eta hiru urteko bi alaba dituena.

Txikitandik bikainak eta ohorezko notak ateratzen emakume honek Filologia Erromanikoa ikasi zuen Donostiako EUTGn. 1977an lizentziatu eta bi urte beranduago tesina irakurri zuen Miren Azkarate ("Denbora markatzeko

Axularrek n eta z nola erabiltzen dituen") Deustuko Unibertsitatean. 1980an Illinoiseko Unibertsitatean joan zen sintaxia eta semantika lantzerako. "Hitz konposatuak Euskaraz", Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean hasitako tesia Ibon Sarasolaren gidaritzapean amaitu zuen 1988an. Hamar urtez



Miren Azkarate

Donostiako EUTGn Morfosintaxia eta Lexikoa irakatsi zituen. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean

dihardu, Zorroagako Fakultatean, euskara teknikoa irakasten. Ikasle zela, euskara irakasten irabazitakoarekin ia Europa osoa trenetaz zeharkatu zuen gazte hura ez da gelditu eta ezin konta ahala lanetan hartu du parte: liburuak, hiztegiak, aldizkariak, telebista... Euskaltzaindian bertan hiru batzordetan ari da lanean: Gramatika

batzordean, Lexikologi Erizpideen Finkapenerako batzordean eta Euskara Batuko Hiztegi batzordean.


Barandiaranek inoiz ere erabili ez zuen aulkian jarriko da. Sarrera hitzaldia azaroaren 27an izango da, Patxi Altuna aitaponteko duela. Gaia, Joxemiel Barandiaranek euskarari egindako ekarria.

EKB, medikuak eta multimediak

♦ Euskal Herriko 200 medikuk hartu zuten parte apirilaren 10 eta 11n Basurtoko ospitalean euskaraz egin ziren II. Ihardunaldi Medikuetan.

♦ Maiatzaren 12an, Arrasate Komunikabideak (ARKO), Euskal Herriko lehen herri-multimedia aurkeztu zen Donostian. Arkok Arrasate Press eta Arrasate telebista gestionatuko ditu, komunikabide berriak sortzen ahaleginduko da eta hilerro Herri.KO izeneko berripapera argitaratuko du herrikomunikabideen artean.

♦ Bi izan dira EKBk eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako bilerak. Gaiak: nola bildu euskaltzaleen ahaleginak, erakundeen eta herri mugimenduen arteko normalizazioa, etab.. Ekainean berriz bilduko dira.



Euskara berreskuratzen ari da

HPINek 1991n egindako inkestaren arabera, EAEan, nagusi dira erdaldun elebakarrak (%67); elebidun funtzionalak, euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiteko gai direnak, lautik bat (%23) dira eta elebidun hartzaileak, euskaraz zertxobait hitz egiten dakitenak edo euskaraz ondo ulertu edo irakurtzeko gai direnak, hamarretik bat (%9). Erdaldun elebakarrak nagusi dira adin-talde guztietan. Hala ere, 1956az geroztik jaiotakoekin artean euskarazko ezagutzak etengabe gora egiten du. Kontu egin 35 urtetik behera euskaldun elebakarrik ez dagoela eta elebidun funtzionalak eta hartzaileak gorantz doazela.


Lan-munduan euskara bultzatzeko hitzarmena

Irailaren 19an euskararen normalizazioa lan-mundura zabaltzeko hitzarmena sinatu zen herri-administrazioa eta Elhuyar kultur elkartearen artean. Eusko Jaurlaritzaren partetik Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak sinatu zuten, Euskal Autonomi Elkarteko foru aldundietako nekazaritza sailekin batera.

Hitzarmenaren helburua euskararen normalizazioa lan-mundura hedatzea da. Horretarako ekonomi sektore desberdinetan mikroplangintzak proposatu eta aurrera eramango dira.

Lehen sektorean, esnegintzaren arloan euskararen erabilera bultzatzeko proiektu pilotoa izango da abiapuntu. Industrian, berri, enpresa jakinetan euskararen normalizaziorako bideragarritasun-

ikerketak eta programak prestatu martxan jarri eta ebaluatuko dira. Hirugarren sektoreari dagokionez, zerbitzuei alegia, gaur egungo egoeraren azterketa eta deskribapenetik hasiko da. Burutu



diren ekintzen bilketa eta gerorako jokabideetarako lehenetsunak proposamenak egingo dira. Azken lan hau egiteko 10.000 biztanletik gorako udalerriak aukeratu dira.

Hitzarmen honek bost urteko

iraupena izango du. Hasteko 11.626.300 pezetako aurrekontuarekin. Jaurlaritzako izenpetzaile bakoitzak %21,6a jarriko du eta foru aldundi bakoitzak %11,6a. Elhuyar elkarteak bi profesional eta bere egitura jarriko ditu lan honetan.

Bost urte hauen amaieran hitzarmena luza liteke, alde biak, administrazioa eta Elhuyar, ados egonez gero.

Koldo Izagirre, 38, donostiarra *Offeko maitasuna* bere lehen luzemetraia aurkeztu berri du. 165 miloiko aurrekontuarekin, Patxi Bisquert, Mónica Molina eta Fernando Guillén Cuervo dira jokalaria nagusienak. Musika Oskorri taldearena du.

Eusebio Erkiaga, 79, lekeitiarrak Bizkaiko Foru Aldundiaren omenaldia jaso zuen, euskal kulturaren alde egindako lanagatik. Eguna euskarazko lehen egunkariko kazetaria izana, makina bat literatur lan idatzi ditu. 1963az geroztik euskaltzain oso.

Pello Salaburu, 40, arizkundarra, Euskal herriko Unibertsitateko Euskara-errektoreorde berria da. Deustuko Unibertsitatean Soziologian eta euskal Filologian lizenziatua, Bostongo MITen ikasi eta gero, doktoradutza atera zuen EHU-n, non hizkuntzalaritza irakaslea den. 1985etik, euskaltzain oso.

Agerraldia

Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo batzordearen aurrean da Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiak, Agiriak bildumaren 2.alea osatuz, argitaratu duen liburu honen izen luzea. Kontsulta eta hausnarketarako liburu interesgarria.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

☐ Euskaraz ☐ Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

Galdezka.....

Elkar hartuta

G. Posible ikusten duzu euskararen inguruan elkar-ulertze zabala egitea?

E. Euskara ikasteko eta euskara hitz egiteko borondateak lotura estu-estua du Euskal Herriaz dugun irudiarekin. Gure herriaz harro bagaude, harro izango gara euskaraz. Etorkizuna ez dago inon idatzita, denon artean egin behar dugu. Etorkizunean baino ez du aurkitzen bere esanahia iraganak. Gure seme-alabei utziko diegunak erakusten du igarotako bizitzaren balioa.itxaropena.

Gure nahia hobetoxeago eta bakean bizi izatea eta gure herria errespetu eta elkar bizitzaren eredu izatea da. Horrexegatik, iritzi ezberdinak izan baditzakegu ere, helburu hori lortzeko modua zein den erabakitzerakoan, jakin badakit bat etorriko garela azken helburua zehazteko orduan. Horretantxe dut itxaropena.



M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Hizkuntz batasuna

1990eko maiatzean, Donostian egin ziren Euskal Kazetarien Jardunaldietan, Ibon Sarasola euskaltzainak "Erdararen erasoa euskal kazetagintzan" gaiaz hitz egin zuen. Hona hemen hantxe esandako batzuk.

1. Euskaldunon arazoa hau da: erdara biren, eta batez ere erdara baten, eragina, eta eragina baino areago erasoa, jasaten dugula.

2. Lexiko berri bat sortu da. Berbarik arrakastatsuenak espainolezko hitzak dira, euskal ikutuez makilatuak. Asanblada, ez asanblea; grapagailu, ez grapadora; planteiatu, ez planteatu, etab. Argi dago garbizaleak garela, baina espainolaren erasoari aurre egin gabe.

3. Euskal kazetagintzaren alorrean, bizia gaztelania da: makina txanponjaleak, eskenatoki, merkatal muntaia, etab. gaztelaniaren kalko hutsak dira.

4. Hegoaldean sortu dugun hiztegi berri honek ez du euskaldun guztientzat balio, ez du Iparraldean funtzionatzen. Beraz, edo hitzak eratzeko sistema aldatzen da Hegoaldean, edo euskaldunen hizkuntz eta kultur batasunari uko egiten diogula aitortu behar dugu.

5. Espainolaren eraso hau neurri handi batean gainditzeko bideak baditugu, baldin eta gaztelaniaren soluzioekiko agertzen dugun lilura baztertu eta Europako beste hizkuntzek aurkitu dituzten aterabideak aztertzen eta gure beharretara egokitzen baditugu. Lan hori aurrera eramateko, Euskaltzaindiaren gidaritzapean eta herri-erakundeen eskuhartzeaz soilik bidera daitekeen hizkuntz plangintza sentitzen du faltan.

Ibon Sarasolaren hitzaldi hau
Euskal Kazetarien Jardunaldiak izeneko
liburuan argitaratu du HPINek *Agiriak*
bildumaren barruan.

✓ Kontutan hartzeko

• **Udako Euskal Unibertsitatearen XX. edizioa**
Iruñeko Larraona ikastetxean izango da, uztailaren 20tik abenduaren 1era. 24 ikastaro eta mintegi monografiko bat, kanpo ekitaldi ugarirekin batera. Matrikula epea: ekainaren 30era arte. Langabetuei prezio bereziak egingo zaizkie.

• **Atzeritarrentzako Euskara Ikastaroak, 1992ko Uda.**
Euskal Herriko Unibertsitateak

Donostian, uztailaren 6tik 31ra arte antolatuta. Lau maila. Informazio gehiagorako dei egin (943) 21 33 77 telefonora.

• **Ekin euskarari**, euskara gizarteratzeari buruzko erakusketak aurrera segitzen du. Uztailaren 3tik 12ra Hondarribiko Zuloaga etxean izango da. Uztailaren 17tik 26ra bitartean, aldiz, Orioko Kostako tailerretan.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA